

"MAITIA"

Martxoko gau epel eta ahaztezin hartan
iluntasuna argi bihurtu zen.

Zuhaitz bakartiek elkar besarkatu zuten,
lore ximelduak kolore distiratsuz jantzi ziren
eta ni, egun hartan, berriz jaio nintzen.

Paradisua ren atarian nengoen ;
leihoak itxita zeuden, isiltasuna genuen lagun.
Irrati mutu bat, besaulki hotz bat,
ispilu erraldoi bat hiru paretez babesturik.
Eta aspaldian bezala ez nengoen bakarrik.
Zure taupaden hauspoak indarrez hornitzen ninduen uneoro,
zure barne begirada goxoak arnasa oparitzen zidan,
zu nirekin sentitzeak
lasaitasuna margotzen zuen nire aurpegi kezkatian.

Denbora aurrera zihoan;
orduak ordu, minutuak minutu , segunduak segundu.
Elkarrekin geunden; zu eta ni, ni eta zu
Ikuskariak ohiko bisita egiten ziguten tarteka isil-isilik
eta zaindaria ere zintzo genuen ondoan fin
baina gu biok egin beharreko ibilbidea zen hura,
zu bait zinen, eta zara, nire bizitzako bidailagun.
Eta hor geunden biok *bizirik, bat eginik.*

Momentua geroz eta gertuago zegoen;

azkenean fisikoki elkar ezagutuko genuen
nahiz eta zerrail bereko giltza izan aspalditik ,
itsaso bereko olatu,
elurtutako mendi garaietako tontor bera.

Goxotasunez deitu zenidan eta ilusioz erantzun nizun.

Elkarren begirada sakon eta sentiberak gurutzatu ziren
maitasun kar indartsu bat osatuz.

Urrun bada ere tunel atarian ikusten zintudan
eta zeure presentziak nire azal atezua
sentimenduzko hitzez leundu zuen.

Egunsentiarekin batera heldu zinen gurera.

Azkenean nire besoetan sentitu zintudan,
nire eskuekin laztandu zintudan,
nire ezpain lehor aberatsekin
oparitu nizun *zure lehenengo muxua.*

Ordundik aurrera dena aldatu da.

*Haizeak ez du bortizki jotzen gure zelai umeletan,
tristurak maitasun eroz mozorrotu dira
eta gerrate zikinek ez dute toki gurean
bake jostalari bati tokia utziz,
nire grinengatibu geldituz.*

Hau guztiagatik, mila esker txiki!!!!

Maite zaitut!!!!

Ilargitxo